

JANARI BEREZIAK

- ❑ Jantokian gelditzen diren ikasle guztiek egunean dagoen bazkaria jan behar dute, nahiz gustukoa ez izan.
- ❑ Ikasleren batek janari zehatz batekin arazorik baldin badauka medikuaren agiria idazkaritzan entregatu beharko du, bestela ez zaio menua aldatuko.

BOTIKAK

Osasun sailak botikak hartzearen inguruan ezartzen dituen irizpideak kontuan izanik gai honi buruz hartutako erabakien berri eman nahi dizuegu.

1. Botikak hartzeko ordutegia etxean hartzeko egokitzea eskatzen dizuegu ahal den neurrian
2. Ikasleren batek edozein eritasun arrunta duela-eta, ikastolako orduetan, botikarik hartu behar izango balu ezinbestekoa izango litzateke medikuaren errezeta edota gurasoen nota ekartzea, botikaren izena, eman beharreko dosia, maiztasuna eta tratamenduaren amaiera zehaztuz.
3. Eritasun kronikoetan gauza bera egin beharko da, errezetan tratamenduaren iraupena luzea dela zehaztuz
4. Tratamendu ez iraunkorra eskatzen duten beste eritasunetan (alergia, diabetesa, etab...) medikuak idatziz argi zehaztu behar dizkio irakasleari zein egoeratan, zein botika, zein dosi eta gainerako jakin beharreko guztiak.

Botikak emateak duen garrantziaz jabetuz aditzera emandako erabakiak zorrozki errespetatzea eskatzen dizuegu.